**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2012ko ABENDUAK 18 / 18 - DICIEMBRE – 2012**

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2012/12/18

**HASIERA / INICIO:** 17:00ETAN

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
2. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
3. Alkateordea, Don Andoni Iruarrizaga Amantegi jauna
4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra jauna
5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiolagarai jauna

Don Juan Ignacio Martínez Orea jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)**
Don Urdaspal Bolinaga Mallaviabarrena jauna
Doña Arrate Elkoro Zengotitabengoa andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra jauna
Doña Deunorone Bizkarra Larrea andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE)**
Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Fernando Castillo Rodríguez jauna
Doña Idoia Agorría Martínez andrea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)**
Don Juan José Gastañazatorre Urizar jauna
Don Adrian Castro Cebrian jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (ARALAR)**
Don Daniel Maeztu Pérez jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTEN ZIRRIBOARREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2012KO AZAROAREN 6KO EZ OHIKOA ETA 2012KO AZAROAREN 26KO OHIKOA.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2012ko azaroaren 6ko ez ohikoa eta 2012ko azaroaren 26ko ohikoa hain zuzen ere.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, gehiengoaren botoarekin, Aralarreko Maeztu Perez jaunaren abstentzioarekin, ez baitzen aipatutako bileran egon, **ONARTU EGITEN DU 2012ko azaroaren 6ko Osoko** Bilkuraren ez ohiko akta; eta aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2012ko azaroaren 26**ko ohiko akta.

**UNO.- LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES, CORRESPONDIENTES A LA EXTRAORDINARIA DE 6 DE NOVIEMBRE Y ORDINARIA DE 26 DE NOVIEMBRE, AMBAS DE 2012.**

DADA LECTURA a los borradores de las Actas de las sesiones anteriores, correspondientes a la Extraordinaria de 6 de Noviembre y Ordinaria de 26 de Noviembre, ambas de 2012.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por mayoria y con la abstención del Concejal Sr. Maeztu Perez (Aralar) dada su inasistencia a la sesión, **APRUEBA** el Acta del Pleno Extraordinario de **6 de Noviembre de 2012**; y, por unanimidad, **APRUEBA** el Acta del Pleno Ordinario de **26 de Noviembre de 2012.**

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Honen inguruko azalpen guztiak dagokien batzordeetan eman direnez hurrengo puntura pastuko gara.

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Teniendo en cuenta que se han dado las explicaciones pertinentes en comisión, pasaremos al siguiente punto.

**HIRU.- 2012KO ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIA ORDAINTZEKO KREDITUAK EZ DAUDELA ERABILGARRI ADIERAZTEKO AKORDIOA, AURREKONTUA EGONKORTZEKO ETA FINANTZA JASANGARRIA ARAUTZEN DUEN 2/2012 LEGE ORGANIKOAK XEDATUTAKOAREN ARABERA.**

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: Kontutan izanda uztailaren 13ko 20/2012 Errege

**TRES.- ACUERDO DE NO DISPONIBILIDAD DE LOS CRÉDITOS PREVISTOS PARA EL ABONO DE LAS PAGAS EXTRAORDINARIAS CORRESPONDIENTES AL MES DE DICIEMBRE DEL EJERCICIO 2012 CON SUJECIÓN A LO ESTABLECIDO EN LA LEY ORGÁNICA 2/2012 DE ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA Y SOSTENIBILIDAD FINANCIERA.**

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: Considerando lo establecido por el art. 2.1. del

Dekretuaren 2.1 artikuluak arautzen duena, lehiakortasuna sustatzeko eta aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko neurriena:

1. *2012an, sektore publikoko langileek (...) murriztuta izango dituzte abenduan jaso behar zituzten ordainsariak, izan ere, kendu egiten dira ordainsari estra, osagarri espezifikoari dagokion ordainsari osagarria edo hile horretako ordainsari osagarriak.*

Era berean, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretuaren 3. artikuluak arautzen duena, lehiakortasuna sustatzeko eta aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko neurriena:

*"...4. Ordainsari estra, osagarri espezifikoari dagokion ordainsari osagarria edo abenduko ordainsari osagarriak, betiere, artikulu honetan ezartzen dena aintzat hartuta, pentsio-planetarako edo aseguru kolektiboaren kontratuak egiteko erabiliko dira hurrengo urtealdietan. Ekarpen hauek erretiroaren kontingentzia estaltzeko erabiliko dira, beti ere, lehiakortasuna sustatzeko eta aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko neurrien gaineko 2/2012 lege organikoak ezartzen duena kontuan izanda eta dagozkien aurrekontulegeetan ezartzen dena aintzat hartuta.*

Kontutan izanda Gobernuaren Ordezkariordetzak abenduaren 13an bidalitako idazkian eskatzen dena,

1. 2012ko abenduko aparteko ordainsaria ordaintzeko kredituak ez daudela erabilgarri adierazteko akordioa, Aurrekontua Egonkortzeko eta Finantza Jasangarria arautzen duen 2/2012 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera.

Kontutan izanda apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 33. artikuluak xedatzen duena:

2012ko abenduko aparteko ordainsariaren zenbatekoaren kopuru osoa geldiaraztea proposatzen da kreditu ez erabilgarria adieraziz, Aurrekontua Egonkortzeko eta Finantza Jasangarria izateko

Real Decreto 20/2012, de 13 de julio de 2012, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad:

1. *En el año 2012 el personal del sector público (...) verá reducida sus retribuciones en las cuantías que corresponda percibir en el mes de diciembre como consecuencia de la supresión tanto de la paga extraordinaria como de la paga adicional de complemento específico o pagas adicionales equivalentes de dicho mes.*

El art. 3 del Real Decreto 20/2012, de 13 de julio de 2012, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad establece que:

*"...4. Las cantidades derivadas de la supresión de la paga extraordinaria y de las pagas adicionales de complemento específico o pagas adicionales equivalentes de acuerdo con lo dispuesto en este artículo se destinarán en ejercicios futuros a realizar aportaciones a planes de pensiones o contratos de seguro colectivo que incluyan la cobertura de la contingencia de jubilación, con sujeción a lo establecido en la Ley Orgánica 2/2012, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y en los términos y con el alcance que se determine en las correspondientes leyes de presupuestos.*

Considerando el escrito de la Subdelegación de Gobierno de fecha 13 de diciembre de 2012 en el que se requiere del Ayuntamiento:

1. Acuerdo de no disponibilidad de los créditos previstos para el abono de las pagas extraordinarias correspondientes al mes de diciembre del ejercicio 2012 con sujeción a lo establecido en la Ley Orgánica 2/2012 de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.

Considerando lo establecido en el art. 33 del Real Decreto 500/1990, de 20 de abril:

En virtud de todo se eleva la siguiente propuesta de Declarar no disponible el crédito correspondiente a la cantidad global del importe de la paga extraordinaria de diciembre de 2012, con sujeción a lo establecido en la Ley Orgánica

2/2012 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, eta aurrekontu legeetan zehazten diren baldintza eta irismenekin.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Uste dut gai honen inguruan askotan eztabaidatu dugula, agian ez honen inguruan baina bai gaur egungo krisi ekonomikoa dela-eta hartzen ari diren neurrien inguruan. Kasu honetan errepikatu egiten da beste eztabaida batzuetan esandakoa.

Lehenengo eta behin, erabaki batzuk hartzen ari gara (edo ari dira) krisia sortarazi ez dutenei krisia ordainarazteko, kasu honetan, sektore publikoko langileei. Oso argi daukagu gaur egungo egoera sozio-ekonomikoan zerikusi gutxi duela langile publikoen egoera ekonomikoak baina, hala ere, bere garaian Espainiako gobernuak erabaki zuen lege bat indarrean jartzea eta horren arabera 14. soldata, apartekoa deitzen dena kentzea erabaki zuten.

Eta gogoratu behar da ez dela apartekoa, baizik eta 14. paga bat, horrela dagoelako erabakita, alegia, soldata -masa salariala- 14 soldatetan jasotzea. Ez dugu inongo arrazoirik ikusten hau egiteko. Berriz ere esan nahi dugu gaur egungo egoera ez dela bakarrik krisi finantzario bat, eredu krisi bat da, eta honen atzean hainbat erabaki politiko egon dira eta erantzukizunak bilatu behar dira erabaki horiek hartu dituzten alderdi politikoetan eta ez langileengan. Beraz, ez dugu ikusten inolako arrazoirik proposamen honen alde bozkatzeko, eta gainera oso larria iruditzen zaigu hau, kalte egiten baitzaio sektore publikoko langileen erosteko ahalmenari.

Gogoratu behar dugu bere garaian Alderdi Sozialistaren gobernuak erabaki zuela % 5eko soldata jaitsiera, bi urte jarraian erabaki zen izoztea, KPI-k %3a igotzen zuen bitartean, eta orain murrizketa honekin % 7a jaisten da sektore publikoko langileen soldata; lau urtetan langile publikoen erosteko ahalmena %15a jaitsi da. Guretzat oso larria da eta oso argi daukagu honen alde ez dugula bozkatuko.

2/2012, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y en los términos y con el alcance que se determine en las correspondientes leyes de presupuestos.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Creo que hemos discutido a menudo en torno a este tema, quizás no directamente pero si en relación a las medidas establecidas en torno a la crisis económica actual. En este caso, se repiten los argumentos esgrimidos en anteriores ocasiones.

En primer lugar, estamos (o están) adoptando uno acuerdos que afectan a estamentos que no han sido los generadores de la crisis, me refiero a los trabajadores del sector público. La situación económica de los empleados del sector público poco tiene que ver con la situación socio-económica que padecemos. A pesar de ello, el Gobierno Español ha puesto en marcha una ley con la que se retira la paga 14 a los empleados públicos.

No se trata de una paga extra, sino que es la paga número 14, puesto que así está establecido, esto es, la correspondiente a la masa salarial a percibir por el trabajador/a. Y no vemos motivo alguno para que se haga así. Volvemos a recordar que la situación actual no es solo de crisis financiera, sino que se trata de una crisis de modelo, tras la cual están varias decisiones políticas cuyos responsables son los grupos políticos que las han aprobado, y no los trabajadores. Por ello, no vemos que haya motivo alguno para votar a favor de esta propuesta, sin olvidar que nos parece muy grave porque incide directamente en el poder adquisitivo de los empleados del sector público.

En su día, el Partido Socialista acordó reducir el 5% del sueldo de los empleados públicos, y la congelación se prolongó por 2 años seguidos, mientras que el IPC subía el 3%. Ahora, con el recorte añadido, el sueldo de los empleados públicos se ve reducido en un 7%, con lo que el poder adquisitivo de estos se ha visto reducido en un 15 % en cuatro años. Nos parece muy grave, por lo que vamos a votar en contra.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Ez dugu alde bozkatuko. Oinarrizko araua da eta horrek esan nahi du bete egin behar dela, horrexegatik, ez diogu zentzurik ikusten bozketa egiteari; gainera, nahiz eta denok kontra bozkatu, berdin-berdin jarraituko luke.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Nosotros tampoco vamos a votar a favor. Esto es de normativa básica y obligado cumplimiento y por ello no vemos sentido a esta votación, independientemente de que aunque votáramos todos en contra iba a seguir adelante.

Neurri honekin %7a jaisten da Udal honetako langileen soldata, baina ez dira kaltetu bakarrak, izan ere, soldata-jaiste honek eragin zuzena du Durangoko merkataritzan eta ostalaritzan. Gure ustez gehiegizkoa da funtzionarioekin egiten ari direna. Horrexegatik, abstenitu egingo gara.

Con esta medida disminuye un 7% el sueldo de los trabajadores y trabajadoras de este Ayuntamiento, pero no solo les afecta a ellos; lo más triste es que afecta y repercute directamente al comercio y a la hostelería de Durango. Creemos que ya está bien eso de “cebarse” con los funcionarios y funcionarias. Por ese motivo nos vamos a abstener.

* **Bolinaga Mallabiabarrena jaunak (Bildu)**: Lehenengo eta behin esan behar dugu ez dugula ulertzen zergatik ekarri den puntu hau hona. Alderdi Sozialistako Bozeramaleak esan duen moduan, eta atzo Alkate andreak aipatu zuen moduan Bozeramaileen Batzordean, guk, hemen irteten den bozketa irtenda ere, berdin berdin aplikatuko da. Honek ez du esan nahi ezin denik ezer egin, kontua da hau ez dela lekua. Diputazioetan bai dago eskumena eta bertan eragin behar da. Kontua ez da asuntoa hona ekartzea eta denon arteko erabaki bat izango balitz bezala utzi. Beste udal askotan gai hau ez da osoko bilkuratik pasatu. Beraz, ez dakigu zergatik ekarri den puntu hau hona ezin badugu ezertan eragin.

* Concejal **Sr. Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu)**: En primer lugar, decir que no entendemos la razón de que se traiga este asunto a Pleno. Tal y como ha indicado la Portavoz del Partido Socialista y al igual que lo recordó la Alcaldesa en la Junta de Portavoces de ayer, la supresión de la paga se va aplicar sea cual sea el resultado de la votación. Lo cual no significa que no se pueda hacer nada, lo que ocurre es que no es este el lugar indicado para ello. La competencia corresponde a Diputación, y es a este ente al que debemos presionar. No se trata de traer el tema a Pleno para que lo solucionemos entre todos. En otros municipios no se llevado a pleno, y no entendemos que se traiga aquí.

Azken baten, Espainia mailan eta Euskal Herri mailan egindako gestio eskasaren emaitza da hau, alegia, gobernu desberdinek egindako gestio txarraren ondorioa. Orain Alderdi Popularrak arazoa konpondu nahi du udal guztietako paga estra izoztuz eta, horrela, txarto daudenak ondo daudenekin konpentsatu nahi ditu.

No es más que el resultado de una mala gestión realizada a nivel de España y de Euskal Herria, es decir, es la consecuencia de la mala gestión de varios gobiernos. Ahora el Partido Popular quiere solucionarlo congelando la paga extra de los ayuntamientos, compensando de este modo a los que están mal con los que están bien.

Durangoren kasuan, orain 7 milioi euro bidali behar ditugu zorra ordaintzeko, beraz, Durangoren kasua ez da txarra, Durangoko udalak badauka dirua bere langileei ordaintzeko. Baina ikusten duguna da PNVk, Bizkaiko Foru Aldundian, gobernu zentralaren “seguidismo” hutsa egiten duela; azkenean isilik gelditzen da, eta isilik gelditzea onartzea da. Badaude zeharbideak; beste leku batzuetan saiatu dira mugitzen.

Durango va a destinar 7 millones para pagar la deuda, lo cual demuestra que Durango no está en mala situación y que tiene capacidad económica para pagar la extra de sus empleados. Pero lo que vemos es que el PNV de la Diputación Foral de Bizkaia hace “seguidismo” del gobierno central. Se queda en silencio, lo que significa que está de acuerdo. Existen alternativas como las que se han planteado en otros lugares.

Adibidez, artikulu batek dakarrena irakurriko dut: "Lo dispuesto en los apartados anteriores no será de la aplicación a aquellos empleados públicos cuyas retribuciones por jornada completa excluidos incentivos al rendimiento"; beraz, badaude moduak langileei soldata hori emateko.

Gogora ekarri nahi dut  K faktorea izenekoa. Kasu honetan borondatea aurkeztu zuen Gobernu Taldeak, eta ikusi zen, nahiz eta langileek murrizketak jasan, dirua jaso ahal dutela beste bide batzuetatik. Kreditu-aldarazpenak ere badaude eta intzentibo moduan eman ahal dira. Hemen ikusi dugu zelan egin diren kreditu-aldarazpenak dietetarako eta beste gauza batzuetarako, baina aldiz, kasu honetan ez dugu borondaterik ikusten. Aipatutako bide horretatik joanez gero, zalantza barik, gure babesa izango zenukete. Ikusten duguna da borondate kontua dela eta argi daukaguna da gobernuan egonez gero saiatuko ginatekeela ahal diren bide guztiak jorratzen, soldata hori kobratzeko irtenbideak badaudelako.

Gainera gaur bertan ikusi dugu albiste bat non Gobernu Taldekoek paga estrari uko egingo dioten langileekiko elkartasuna argudiatuz. Nire ustez, hori demagogia hutsa da: langileei zuen soldatak baino eurenak axola zaizkie. Esandako guztiarengatik kontrako bozka emango dugu.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: askotan esaten da derrigorrezkoa dela, besterik ezin dela egin, eta holakoak. Baina guk ez dugu onartzen gauzak datozen moduan hartu behar izatea eta gauzak egiteko beste biderik ez dagoela esatea. Gure ustez badaude moduak beste era batera egiteko, beraz kontrako botoa emango dugu eta prest gaude ondorio guztiak gure gain hartzeko.

Bestalde, gustatuko litzaiguke Eusko Alderdi Jeltzaleari mezu zuzen bat helaraztea: egoera hau aurrez aurre izanik eta estatu espainolak praktikatzen duen politika zentralizatzailea kontuan izanda, non daude 30 urtetan zehar defenditu duzuen autogobernuaren mugak? Mugak, argi eta garbi, Madrileko Epaitegi Konstituzionalean daude.

Beste alde batetik ikusten dugu momentu zehatz honetan estatu espainolak erabakitzen duela ostiralero Errege dekretuen bitartez autogobernuaren

Leo un artículo publicado hoy mismo: "Lo dispuesto en los apartados anteriores no será de la aplicación a aquellos empleados públicos cuyas retribuciones por jornada completa excluidos incentivos al rendimiento"; por lo tanto, es posible pagar la extra a los empleados.

Quiero recordar el denominado factor K. En esta ocasión el Equipo de Gobierno mostró su voluntad para afrontar otros caminos con los que hacer frente a las reducciones salariales a los empleados municipales. Existe también la posibilidad de acudir a las modificaciones de crédito, que pueden utilizarse a modo de incentivo. Hemos aprobado modificaciones de crédito para hacer frente al coste de las dietas de los corporativos y para otras cosas. Es cuestión de voluntad, que en el caso que nos ocupa no la veo por ninguna parte. Si estuviéramos en el Equipo de Gobierno intentaríamos buscar soluciones, porque creemos que es posible abonar la extra de los empleados.

Hoy mismo ha salido la noticia de que los miembros del Equipo de Gobierno renuncian a la paga extra como muestra de solidaridad hacia sus empleados. Para mí, no es más que demagogia: a los empleados lo que les importa es su sueldo no el sueldo de sus gobernantes. Por todo lo dicho, votaremos en contra.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: A menudo se dice que es de obligado cumplimiento, que no hay otra posibilidad, etc. Pero nosotros no aceptamos las cosas porque sí, y tampoco que se nos diga que no hay otra opción. Pensamos que existe la posibilidad de hacerlo de otra manera. Por ello, votaremos en contra, y estamos dispuestos a acarrear con las consecuencias.

Por otro lado, nos gustaría lanzar la siguiente cuestión al PNV: ante la situación actual y siendo conscientes de la política centralizadora puesta en práctica por el estado español, ¿dónde están los límites del autogobierno que habéis estado defendiendo durantes estos últimos 30 años? Está claro: en el Tribunal Constitucional español.

De igual forma, vemos que el estado español, en sus sesiones del viernes, acuerda, vía decreto, ir contra el autogobierno, y lo único que

kontra joatea eta horren aurrean egiten duguna da alde bozkatu edo, asko jota, abstenitu. Uste dugu agortuta dagoela autogobernuaren diskurtso hori. Uste dugu momentua dela erabateko gobernua eskatzeko eta gure proposamena da, inoiz baino gehiago, independentzia. Ez da soilik behar ekonomiko bat, baina momentu honetan beharrizan ekonomiko baten moduan ikusten dugu autogobernua alde batera uztea eta era bateko gobernua eskatzea, alegia, era bateko burujabetza eta independentziaren aldeko aldarrikapena egitea.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Ni bueltako naiz irakurtzera zein den gaur hona dakargun akordioa, eta akordioa da erremanente moduan gordetzea paga estra hori. Ez gaude eztabaidatzen paga estra ordaindu behar den edo ez, ezin da ordaindu, arau oinarrizkoa baita. Ordaintzea legearen kontrako zerbait da, hain zuzen ere, Donostiako alkateak hori esan du eta horrela jokatu du. Beraz, ezinezkoa baldin bazaio berari guri ere bai, udal moduan ezinezkoa zaigu. Kritikagarria da guztiz araudi hori eta kritikatu egin dugu, beraz, langileen eskubideen kontrako erabakia da, euren erosteko ahalmenaren kontrako araua delako, eta baita udal autonomiaren kontrako araua ere.

Hau guztia horrela da, baina ez gaude hemen hori eztabaidatzeko, ezta independentziari buruz hitz egiteko; hemen gaude paga estrako diru guztia gordeta geratzeko erabakia hartzeko.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Alderdi Popularra.
- Kontrato botoak: ZORTZI, 6 Bildu eta 2 Aralar.
- Abstentzioak: HIRU, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

Hortaz,

hacemos al respecto es votar en contra o abstenernos. Creemos que el discurso en torno al autogobierno está agotado. Creemos que ha llegado el momento de pedir el gobierno total, esto es, la independencia. Y no se trata de una mera cuestión económica, pero si es cierto que en estos momentos vemos la necesidad económica de abandonar la demanda de autogobierno para solicitar el gobierno total, es decir, ha llegado el momento de reclamar la soberanía y la independencia.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Quiero recordar cuál es el acuerdo que traemos a Pleno: destinar la paga extra al remanente. No estamos discutiendo si se debe pagar o no la paga extra, puesto que no se puede abonar porque es una norma básica. Abonar la paga extra va contra la ley, tal y como lo ha reconocido el alcalde de San Sebastian. Por lo tanto, si él no puede hacerlo tampoco nosotros. Es cierto que la norma es criticable y así lo hemos hecho, porque va en contra de los derechos de los empleados municipales, puesto que disminuye su poder adquisitivo.

Todo ello es cierto, pero no estamos aquí para discutir sobre ello, y tampoco para hablar sobre la independencia. Estamos aquí para destinar la cantidad correspondiente a la paga extra al remanente.

Finalizado el debate, la Presidencia lo somete a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Popular.
- Votos en contra: OCHO, 6 de Bildu y 2 de Aralar.
- Abstenciones: TRES, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

En consecuencia,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, onartzen du:

Lehena.- Langileei ez ordaintzea 2012ko abenduko aparteko ordainsaria.

Bigarrena.- Udal Korporazioak akordio egokia har dezala 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren zenbatekoaren kopuru osoa geldiarazi bedi kreditu ez erabilgarri adierazita, 2/2012 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, Aurrekontua Egonkortzeko eta Finantza Jasangarria izateko, eta aurrekontu legeetan zehazten diren baldintza eta irismenekin.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda:

Primero.- No proceder al abono a los/as trabajadores/as de la paga extraordinaria del mes de diciembre de 2012.

Segundo.- Que la Corporación Municipal tome el acuerdo pertinente por el que la cantidad global del importe de la paga extraordinaria de Diciembre de 2012 sea inmovilizado mediante declaración de crédito no disponible, con sujeción a lo establecido en la Ley Orgánica 2/1012, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y en los términos y con el alcance que se determine en las correspondientes leyes de presupuestos.

**LAU.- DURANGO KIROLAK ERAKUNDEKO KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAUDIA ETA ERABILTZAILEEN ARAUDI OROKORRA ALDATZEKO PROPOSAMENA (GOBERNU TALDEAK 2012KO ABENDUAREN 11N IRIZPENA EMANDA).**

Durango Kirolak Erakunde Autonomoaren Gobernu Batzaren, 2012ko abenduaren 11koa, irizpenaren berri ematen da:

"2012ko Abenduaren 11 datako, Durango Kirolaken Gobernu-Batzordean, deliberamenduaren ondoren, Durango Kirolaken Barne-araudiaren aldaketa onartzeko beharra bozketara igotzen da.

Emanda ekiten zaio bozketari, hurrengo emaitzarekin:

- Botoak alde: EAJ-PNV (4); PP (1).
- Abstentzioak: PSE-EE (PSOE) (2); Bildu (1); Aralar (1).

**CUATRO.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO GENERAL DE PERSONAS USUARIAS Y NORMATIVA DE USO DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS DE DURANGO KIROLAK. (DICTAMINADO POR SU JUNTA DE GOBIERNO EN 11 DE DICIEMBRE DE 2012).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Junta de Gobierno de Durango Kirolak en sesión de 11 de Diciembre de 2012, del tenor siguiente:

"En Junta de Gobierno de Durango Kirolak, de fecha 11 de Diciembre de 2012, tras deliberación, se eleva a votación la necesidad de aprobar la modificación del Reglamento interno de Durango Kirolak.

Se procede a la votación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: EAJ-PNV (4); PP (1).
- Abstenciones: PSE-EE (PSOE) (2); Bildu (1); Aralar (1).

Gobernu-Batzordeak, Durango Kirolaken Barne-araudiaren aldaketaren proposamena igotzen du Korporazioaren Osoko Bilkurara."

* Idazkari Orokorra **Sorarrain Tolosa jaunak**: 2008ko ekainaren 26ko Udaleko Osoko Bilkuran hartutako akordio bidez, behin behinean onartu zen ***Kirol-Instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta erabilera-araudia***:

Igarotako denbora, instalakuntza berriak barneratu izana eta erabiltzaile berrien kopurua bikoiztu egin dela ikusirik aipatutako Erregelamenduaren egokipena mahaigaineratzen da.

Planteatzen diren aldaketak, laburbilduz, honako hauek dira:

1. Erakunde Autonomoaren izenaren egokipena.
2. Erabiltzaileen eskubideen eta betebeharrak egokitzea.
3. Abonatuen sartzeko eta ordaintzeko erei, nola bazkide izate eta uko egiteari buruzko zenbait xehetasun.
4. Instalazioetara sartzeko eta erabiltzeko arauetan xehetasun batzuk egiten dira, estali gabeko igerilekuak, kirol anitzetako pista eta rokodromo-boulderra barne direlarik.
5. Ez-ohiko jarduerak, dagozkion baldintzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa zehazten duen II eranskina barneratzen da.

Udal Ordenantza zein erregelamenduen onespena zein aldarazpen prozedura honako hau da:

**A.** Ordenantza proiektua egin eta gero hasierako onespena Udalbatzari dagokio, eta informazio publikoko aldia zabalduko da, gutxienez hogeita hamar egunetako epez interesatuek erreklamazioak eta egoki iruditzen zaizkien iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko

La Junta de Gobierno, eleva al Pleno de la Corporación propuesta de modificación del Reglamento interno de Durango Kirolak."

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: Mediante Acuerdo Plenario de 26 de Junio de 2008, se aprobó Inicialmente el ***Reglamento General de personas usuarias y normativa de uso de las instalaciones deportivas***

Dado el tiempo transcurrido, la apertura de nuevas instalaciones así como el hecho de haber duplicado el número de usuarios y usuarias de las mismas, se plantea la adecuación de dicho Reglamento.

Las modificaciones que se plantean, en resumen son las siguientes:

1. Adecuación de la nomenclatura del Organismo Autónomo.
2. Adecuación de los derechos y deberes de las personas usuarias.
3. Determinados aspectos de la forma de acceso así como de las formas de pago, altas y bajas de las personas abonadas.
4. Puntualizaciones sobre normas generales de acceso y utilización de las instalaciones incluidas las piscinas descubiertas, pista polideportiva y rocódromo-boulder.
5. Incorporación de un Anexo II relativo a eventos extraordinarios, requisitos y documentación a presentar

La aprobación así como la modificación de las Ordenanzas y Reglamentos locales se ajustará al siguiente procedimiento:

**A.** Elaborado el proyecto de Ordenanza, corresponderá la aprobación inicial de la misma por el Pleno y se abrirá período de información pública, por un plazo mínimo de treinta días, para que los interesados puedan presentar las reclamaciones y sugerencias que estimen oportunas. En virtud de lo establecido por el artículo 47 de la Ley de

7/1985 Legearen 47. artikuluak ezarritakoa betez, akordioa hartu ahal izateko gehiengo soila behar izango da. Hasierako onespeneko Akordioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Udalaren iragarki-taulan.

**B.** Jendaurreko apean erreklamazioak edota iradokizunak aurkeztuko balira, hauek ebatzi egin behar izango dira, alegazioak o egiten badira aldaketak Ordenantzako testuari gehitu egin beharko direlarik. Behin betiko onespena Osoko Bilkurari dagokio, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 22.2.d artikuluak ezarritakoaren arabera eta, Informazio-Batzordearen aurreko Irizpenaz.

**C.** Jendaurreko epean Ordenantzaren hasierako onespenari erreklamaziorik aurkeztuko ez balitzaio behin behineko onespena behin betikoa bihurtuko litzateke.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Inork ez badauka ezer esateko zuzenean bozkatuko dugu.

- Aldeko botoak: HAMAR, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea eta 2 Alderdi Popularra.
- Kontrato botoak: BAT ER EZ.
- Abstentzioak: HAMAIKA, 6 Bildu, 3 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra eta 2 Aralar.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, onartu egiten du:

LEHENA.- **Durango Kirolak erakundeko kirol instalazioak erabiltzeko Araudia eta erabiltzaileen Araudi Orokorraren ALDAKETA HASIERA BATEAN** onartzea, betiere, espedientearen zirriborroan dagoen testua aintzat hartuta.

Bases de Régimen Local, la adopción del acuerdo precisa la mayoría simple. El Acuerdo de aprobación inicial se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

**B.** Concluido el período de información pública, si se han presentado reclamaciones y/o sugerencias, deberán resolverse estas, incorporándose al texto de la Ordenanza las modificaciones derivadas de la resolución de las alegaciones. La aprobación definitiva corresponde al Pleno, de conformidad con lo dispuesto por los artículos 22.2.d) y 49 de la Ley 7/1985 previo Dictamen de la Comisión Informativa.

**C.** Si no se presenten reclamaciones a la aprobación inicial de la Ordenanza en el plazo de información pública, se entenderá definitivamente adoptado el Acuerdo hasta entonces provisional.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Si nadie tiene nada que decir, pasaremos a la votación.

- Votos a favor: DIEZ, 8 del Partido Nacionalista Vasco y 2 del Partido Popular.
- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: ONCE, 6 de Bildu, 3 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra y 2 de Aralar.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda:

PRIMERO.- Aprobar **INICIALMENTE** la **MODIFICACION** del **Reglamento General de personas usuarias y normativa de uso de las instalaciones deportivas de Durango Kirolak**, conforme al texto que figura en el borrador obrante en el expediente de su razón.

BIGARRENA.- Espedientea **jendaurrean erakutsiko da** eta entzunaldia ere egingo da interesatuekin, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki Taulan, **HOGEITA HAMAR (30) EGUNEZ**, jarriko den iragarkiaren bidez, argitaratu ondorengo egunetik zenbatuta, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera izango du.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, behin behineko akordioa behin betiko bilatuko da (aipatutako lege testuaren 49.c) artikulua), eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuz gero, osoko bilkurak epe barruan ebatziko ditu eta behin betiko onarpenari ekingo dio.

LAUGARRENA.- Aipatutako araudiaren aldaketa, behin betiko onartu eta gero, ez da indarrean sartuko aldaketaren testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu arte eta toki araubidea arautzen duten oinarrien, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 65.2 artikuluak aurreikusten duen epea igaro arte.

SEGUNDO.- Someter dicho expediente a **información pública** mediante anuncios en el Boletín Oficial de Bizkaia, así como en el Tablón de Anuncios de este Ayuntamiento, durante un plazo de **TREINTA (30) DIAS**, a contar del siguiente día al de su publicación en el citado Boletín, para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

TERCERO.- En el caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional (artículo 49.c) del referido texto legal). En caso contrario, el Pleno resolverá las reclamaciones y sugerencias presentadas dentro del plazo y procederá a su aprobación definitiva.

CUARTO.- La modificación del citado Reglamento, una vez aprobada definitivamente, no entrará en vigor hasta que se haya publicado el texto de la modificación en el Boletín Oficial de Bizkaia y haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

**BOST.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.**

- **Maeztu Perez jaunak (Aralar)**: Behin baino gehiagotan egin dugu eskaera hau Ogasun Batzordean baina erantzunik jaso ez dugunez, eta urtea bukatzear dagoenez, uste dugu beharrezkoa dela hemen ere galdera bera egitea.

  Aurrekontuen egonkortasun-legea dela eta, jakin nahi dugu momentu honetan onartutako baina osotasunean exekutatu barik dauden kredituekin zer gertatuko den urtarrilaren 1etik aurrera? Jakin nahi dugu eta publiko egitea nahi dugu. Era berean, nahi dugu publiko egitea zein den udaletxe honen zorpetze maila eta zorpetze hori ordaintzeko zein kreditu erabiliko diren ere jakin nahi dugu.

**CINCO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

- Concejal **Sr. Maeztu Perez (Aralar)**: Hemos hecho la misma petición, en más de una ocasión, en la Comisión de Hacienda, pero como no hemos recibido respuesta la traemos al Pleno porque el año está finalizando.

  En relación a la ley de estabilidad presupuestaria, queremos saber qué es lo que va a ocurrir a partir del 1 de enero con los créditos acordados pero que no han sido ejecutados. Queremos conocerlo y hacerlo público. Así mismo, queremos hacer público el nivel de endeudamiento de este Ayuntamiento, así como los créditos que se van a emplear para hacer frente a dicho endeudamiento.

- **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP)**: Galdera bat, Durangoko Udalak komunikazioren bat jaso al du trenaren lurperatzearen inaugurazioaren inguruan?

- **Bolinaga Mallabiabarrena jaunak (Bildu)**: Gure eskaera Gobernu Taldearentzat da; Bizkaiko Foru Aldundian zuen alderdiari eskatzea ahal duen guztia egin dezala soldata estra, beste era baten bada ere, intzentibo moduan-edo kobratzeko. Badakigu udalek ez dutela eskumen hori, baina diputazioek bai.

- Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Sesio hau altxatu aurretik gabon zoriontsuak opa dizkizuet zinegotzi guztiei eta hor atzean, plenorik pleno, jarrita dauden hedabideetako kazetariei, udal langileei eta baita publikoari ere. Ondo irten gaitezen urte honetatik eta hobetu sartu hurrengoan.

- Concejal **Sr. Gastañazatorre Urizar (PP)**: Una pregunta, ¿el Ayuntamiento de Durango ha recibido alguna comunicación sobre la inauguración del tren soterrado?

- Concejal **Sr. Bolinaga Mallabiabarrena (Bildu)**: Un petición para el Equipo de Gobierno: que soliciten a los representantes de su partido en la Diputación Foral de Bizkaia para que hagan todo lo posible con el objeto de que los empleados públicos cobren la paga extra, aunque sea a través de incentivos. Sabemos que el asunto no es competencia del Ayuntamiento, pero si de la Diputación

- Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Antes de dar por finalizada la sesión, extiendo a los corporativos, medios de comunicación y público en general, mi deseo de que paséis unas felices fiestas de Navidad, y que salgamos bien de este año y entremos con buen pie en el que viene.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 17:30ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO habiendo finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 17:30 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.